

Dokumentu honetan **Xabier Bilbao Lopez** euskaldun bikain bezain euskaltzale errimeak aspalditxo UK aldizkarian argitaratutako artikuluetakoko bat duzue. Xabierrek maisutasunez darabil Getxoko euskara, eta artikulu hauetan, Uribe Kostako euskalki aldaeraren zertzelada nagusiak erakusten dizkigu, geu ere aberastasun horren parte bilaka gaitezen. Alde horretatik, gure eskerrik eta beroenak Xabierrentzat, tantaz tanta isuritako jakinduria urrezko hori ALBERen eskutan ipintzeagatik. Estimatusa dago, Xabier!

Joseba Santxo

1. atala: **AGURREK ETA ERANTZUNEK**

Akabuko Punteko kuadrutxu barri honetan ikusi ingo du, apurke-apurke, zelan esaten direzen gauzak Uribe Kostako euskeran. Gure helburu ixengo da bertako euskerarik ez dakienari lagundute bertako euskere ulertuten, eta gure badau, bertako euskerako gauzatxu batzuk ikisi eta erabilteko bide emote.

1. Berbatan hasteko zer esan.

Agurrek:

egunon,
arrastion,
gabon,

áupa! / épa!
áupa, aspaldiko!

zélan?
zélan zauz? / zélan zauze? / zélan gauz?
zélan zabiltzez? / zélan zabiltzeze? / zélan gabiltzez?

Erantzunek:

ondo / ederto
ondo nau / ondo gauz
ondo nabil / ondo gabiltzez
enabíl txarto / ezkabiltzéz txarto
enabíl (lar) ondo / ezkabiltzéz (lar) ondo

betikó lez
hemen nau / hemen gauz
txarto ez eta, ezín keja
hálan-hólan

Adibide batzuk:

-Egunon, Jose Mari. Zélan gabiltzez?
-Egunón bai, hemen nau, betikó lez. Zu zélan zauz ba?
-Ni záharrau eta txárrau.
-Aupa neskáto, zélan?
-Aupa, hemen náu begíre, ía autobuse noz datórren. Zu zélan?
-Zau ikúste betí ondo.

Oharra: Azentuk imini duz berba batzuten, eta beste batzuten ez. Azenturik ez dekon berbe esakunen erdin badau ez da azenturik ahoskatu behar; osterá, berba hori esakunen akabuko bada edo koma baten aurren badau, azentu ahoskatu behar da azkeneko bokalan ganen. Hau astiroau ikusko du beste aldi baten.